

422.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO-UZTAILA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ UDAKO GUKA
+ IKUSBERA

BULEGO

HEGAN JARRAITZEN DUTE

INNOVA

AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

ADITUAK ,
BERRITZAILEAK ETA
GERTUKOAK

Jose Artetxe 5
📞 943-02 59 55

...erantzuna gara ...ALBERDI gara

 **ALBERDI**
INMOBILIARIA

943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

Idiakez Ederra

**Zure etxebizitza berria
Azkoitiko bihotzean.**

Zatoz eta aukera ezazu gustoko etxebizitza.

**1, 2 eta 3
logelatako
etxebizitzak.**



www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 422

2022-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Andoni Elduaian, <i>Ez dago merkea.</i> | 24 | Zakelmari. |
| 6 | Hitz bitan Oihana Aranbarri, Urola Erdiko turismo bulegoko arduraduna. | 26 | Erretratua Ione Bretaña, psikologian doktorea eta irakaslea. |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Amaia Garate, <i>Pandemiako haizeak.</i> | 30 | Plazan bazan |
| 10 | Iritziak Juan Ramon Alberdi, <i>Mundua, haurren ardura?,</i> Rina Cabeza, <i>Despolitizazioaz.</i> | 32 | Akordatzan? Ezkontza bueltako kontuak (II). |
| 12 | Elkarrizketa Bulego taldea. | 36 | Erreportajea Errimak, harrobia eta zaletasuna. |
| 18 | Iritzia Kari Alberdi, <i>Lurraren kantua.</i> | 40 | Klik! Uda sasoian, mapan altxor. |
| 19 | Iritzi grafikoa Intza Arakistain. | 44 | Iritzia Sara Rodriguez, <i>(Des)gaitasuna.</i> |
| 20 | Elkarrizketa Jose Mari Larrañaga, Arrats elkartearen lehendakaria. | 46 | Euskara Ioritz Gonzalez, <i>Amasgunean amasestuka.</i> |
| | | | Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1.
20730 AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izagirre
Andoni Elduaian
Ane Olaizola
Nerea Uranga
Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu

Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Amaia Garate
Juan Ramon Alberdi
Rina Cabeza
Kari Alberdi
Intza Arakistain

Miren Elorza
Gorka Larrañaga
Kepa Alberdi
Sara Rodriguez
Ioritz Gonzalez
Arnaitz Rubio Aprea
Ugaitz Beristain

Administrazio

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale



PUBLIZITATEA



YOKOKIROLAK
www.yokokirolak.com
Kale nagusia 90 - Azkoitia

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urbetane 9 bis. 943-15 00 23 **AZPEITIA**

Web proiektuak
Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 06 74



Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com



Ituriondo, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 82

ETXEZA TABERNA



Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31



**JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

zurt

OGI PARTIDAK
SARDINAK ETA HAMBURGESAK
ONTSALAK
RABIOAK
GARRAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA ZUZENKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PIZAK
ONTSALAK
PINTORAK
PLAZA KONBATUAK
RABIOAK
OGI PARTIDAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SARDINAK
PARRILLAK
LAPURDUA ETAN GELU JARRE IBERITA

LATZ
TABERNA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com



% 50 baino gehiago salduta
IBAIONDO BERRI

ARANBARRI
INMOBILIARIA

www.aranbarri.com

Ez dago merkea



ANDONI ELDUAIEN

Gora eta gora beti... haik gora (...)", esanez hasten da Oskorri musika taldearen abesti ezaguna. Ez dut abesten jarraituko, kontua ez dago-eta txantxetarako. Azken hilabeteetan, prezioen igoera da telebista zein irratia piztu orduko albistegietan jorratzen duten gai nagusia; dagoeneko Euskal Herriko gasolindegia guztiak ezagutzeaz gaude, aizue. Zoritxarrez, ordea, kontu horrek aspaldi utzi zion albiste izateari, jada egunerokoa bihurtu baita. Egunetik egunera, koska bat gorago daude prezioak, eta gu, herritarrak, goia edo langa noiz joko zain; gure erosteko ahalmena koska bat edo batzuk behera ari da egiten.

Bizitzaren kostuaren igoera ia produktu guztietan ari gara nabaritzen. Adibidez, funtsezko produktuak, hala nola oliba olio, irina edota arrautzak %20 baino gehiago garestitu dira azken urtean. Esneak, haragiak eta elikadura pastak ere antzeko igoera izan dute. Produktu jangarriez gain, altzariak eta etxeko beste material batzuk ere duela urtebete baino garestiagoak dira. Prezioen igoera gutxien nabaritu dutenak, bestalde, ordenagailuak eta telefono mugikorrek dira. Bitxia da benetan.

Ekonomiak egungoa bezalako krisi inflazionista bizi duenean, hainbat kontzeptu errepikatzen dira: inflazioa, estanflazioa eta erredukzioa. Lehen kontzeptuak prezioen bilakaera islatzen du; bigarrenak prezioen igoera nabarmena, geldialdi ekonomikoarekin konbinatuta. Hirugarren kontzeptuak, berriz, diru kopuru beraren truke produktu kantitate gutxiago saltzea dakar berarekin. Prezioen igoera hori Ukrainako gerrak eragindakoa dela esaten ari dira behin eta berriz komunikabideak, baina nire zalantzak ditut. Ukrainako gerrak eraginda ari al dira prezioak gora egiten? Edo gerra hori ari dira baliatzen prezioak behin eta berriz igotzeko?

Aurreko batean, herriko bi dendarirekin egin nuen topo Kale Nagusian. Bi merkataria guztiz penatuta eta arduratuta sumatu nituen azken urteetan herriko merkataritza bizitzen ari den gainbeherarekin. Ikusten dute bizitzeko modu hori galtzeaz dela eta herriek beren esentzia galduko dutela. "Guztia gainbeheran doa" edo "bizitzako urterik onenak igaro dira", zioten.

Aurreko paragrafoan esan dudana ez da berria, eta ondoren egingo dudana eskaera ere ez: ekonomiaren gainbehera hau bizita, gure dirua herriko merkataritzan xahutzea ez ote da izango irtenbiderik onena? Bestelako aukera posible guztiak agortu ditugu dagoeneko, eta ikusi da ez dakarrela ezer onik. Hori guztia gertatzen ari den honetan, gainera, hor gaude, beste era bateko konfinamenduan sartuta, norbere buruarekin nahikoa lan dugula esanez edo bestelako hamaika aitzakia jarritz. Norbere erara bizi garen bitartean, ez dute gudanako inolako errukirik izango, eta prezioek etenik gabe egingo dute gora. Baina guztiok bat eginda kontra egiten hasiko bagina? ■■■

**NORBERE ERARA BIZI
GAREN BITARTEAN, EZ
DUTE GUGANAKO
INOLAKO ERRUKIRIK
IZANGO**

"Bisitariak geroz eta gehiago galdetzen dute naturari buruz"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANE OLAIZOLA

Iraurgi Berritzeneko lantaldeko kidea da Oihana Aranbarri (Azkoitia, 1978), eta Loiolan dagoen Urola Erdiko turismo bulegoaren ardura du azken urteetan.

Zein da zure egitekoa turismo bulegoan?

Batetik, arlo teknikoan lan egiten dugu; produktu turistikoa lantzen dugu, bezeroen beharren arabera. Oaintsu estreinatu dugu, esaterako, Ignaziotar Lurraldea 360 proiektua. Eremu horretan dauden hiru baseliza eta santutegi *online* bisitatzeko aukera ematen du webguneak, erresoluzio altuko argazkien bidez. Garrantzitsua bezain ikusgarria da proiektua.

Horrez gain, bisitariak harrera egiten diet bulegoan aurrez aurre edo helbide elektroniko bidez. Asko gustatzen zait jendearekin egotea, eta horixe izan da izurritan gehien sumatu dudana faltan. Izan ere, bulegoak aukera ematen du bisitariak elkarriketak patxadaz egiteko.

Zergatik? Bulegoa txikia delako?

Bisitariak ez direlako bulegora etengabe etortzen. Horrek ahalbidetzen dit haiei gauzak lasai azaltzea. Izan ere, batzuek ez gaituzte kokatzen mapan, eta haiei non gauden, gure identitatea zein den... azaltzen diet.

Zein da bulegoaren josten duten bisitarien profila?

Mundu osoko bisitariak etortzen dira, eta horien artean, bi profil bereiziko nituzke: batetik, goi denboraldian, familiarekin edo lagun artean bidaiatzen ari direnak; eta bestetik, behe-denboraldian atzeritik autobusez etortzen direnak. Dena den, behe-denboraldia aldatzen ari da, egun jendeak urte osoan bidaiatzen baitu. Izurriarekin geratu egin zen turistaren joan-etorria, baina badirudi jendea berriz hasi dela mugitzen.

Batez ere, nondik joaten dira turistak?

Azkenaldian, batez ere, atzeritarrak etortzen dira. AEBetiko jende dezente etortzen da, han San Inazioaren unibertsitate asko dituztelako. Aurten, gainera, Inaziotar Bidearen 500. urteurrena da, eta hemendik pasatzen diren asko bide hori ari

dira egiten: alemaniarrek, frantsesak, espainiarrak...

Oaintsu arte, barne turismoa nagusituko zen, ezta?

Barne turismoa erabatekoa izan da, eta batez ere, bizkaitarrek esploratu dute Gipuzkoa, askok ez baitute ezagutzen. Finean, Loiolak zabaltzen du bailararen izena, mundu osoan baita ezaguna. Baina bisitariak lururatuta gelditzen dira inguruan zer dagoen ikusten dutenean. Hemengo jendearekin ere harrituta geratzen dira, oso adeitsua delako haiekin.

Zer da bisitariak gehien eskatzen dutena?

Basilika ikustera gerturatzen dira Loiolara, baina gero zer gehiago egin dezaketen galdetzen digute; planak nahi dituzte. Loiola ezagutzen dutenean, Azkoitira edota Azpeitira joaten dira, eta han kaleko giroa ikusten dute. Era berean, asko gustatzen zaie hemengo lasaitasuna.

Turismoa lehengo egoerara itzultzen ari al da?

Antzematen da jendearen joan-etorria. Atzeritarren betetako autobusak hasi dira etortzen. Nabari da jendeak kanpora irteteko eta lekuak ezagutzeko gogoia duela. Ez dago lehengo beldur hura; orain, lasai dabil jendea.

Nolako uda aurreikusten duzue?

Ezkutuko Altxorrek bisita gidatuekin hasi gara dagoeneko. Vicente Davilak eskaintzen ditu saioak, eta batez ere, bertako herritarrak animatzen dira bisita horietara. Izan ere, geuk ere ezagutzen ez ditugun txoko ugari ditugu hemen. Horrez gain, inguruko ostatuetako arduradunek ekainean mugimendu dezente antzeman dutela esan didate. Azkenaldian ikusi dugu bisitariak eskualdean ari direla ostatu hartzen; Gipuzkoaren erdian egonik, hiriburuetatik oso gertu gaude, eta hori oso garrantzitsua da mugitzeko.

Urola Erdia ezagutaraztea da zure lana. Zein da zure lekukiko gogokoena?

Bisitariak geroz eta gehiago galdetzen dute naturaz. Urolako Bide Berdea bertan dugu, eta bisitariak asko gustatzen zaizkie horrek ematen dituen aukerak. Izarraitzen ere jende asko dabil. Asko gustatzen zait natura. ■■■



Pandemiako haizeak

ARGAZKIA ETA TESTUA: **AMAIA GARATE**

2020ko maiatzaren 5a. Pandemia garaia. Orain dela bi urte pasa. Guztiok zintzo 20:00ak iritsi arte etxean zain egoten ginenekoa. Atzera begira, urruti ikusten dugu eta sinesgaitza dirudi. Erraz ahaztu zaigu iluntzen zuenean nola joaten ginen kalera, batzuk oinez, beste batzuk bizikletan eta beste batzuk hegan. Eskerrak Kattalinek argitzen zituen gure gauak bete-bete zegoenean. ■■■





Mundua, haurren ardura?

Duela aste batzuk emaztea eta biok pasiera egitera joan ginen Uxerko iturri aldera. Urte mordoxka nengoen handik pasatu gabe, eta nire bizitzako bolada luzea, haurtzaroa barne, Errebalean igaro izanik, umetako oroitzapenak etorri zitzaizkidan. Iturriaren bueltan udako iluntzetan biltzen zen jende andana irudikatu nuen, denak ontzi banarekin afaritara ur freskoa eramateko asmoz. Guretzat Uxerko iturria zen, beste batzuentzat "la fuente fría", baina denentzat gustuko ura. Denboraren kariaz jazotzen den perspektiba aldaketak pentsarazi zidan, bidezidor estu hartan nola sar zitekeen hainbeste jende. Atanoko-errekako jolasak ere bururatu zitzaizkidan, amuarrairen eskizian ibili arren,

"zapataria" soilik harrapatzen genituenekoak. Edo uretan arropa denak bustitzeagatik lagunik onenarekin "betirako" haserretutako unea, egun bateko edo biko luzera izaten zuenean.

Oroitzapen horien hariari tiraka bururatu zait haurtzaroa garai zoragarria dela. Egun denak lehenak eta azkenak lez bizitzen dira, eta helduen mundua kontu konplikatu gisa irudikatzen da. Alabaina, aro guztiak lez, haurtzaroa ere bukatu egiten da. Ez gara kontziente izaten, baina jolasaren eta irudimenaren erreinu izatetik helduen eremu korapilatsu eta zakarrerako jauzia egiten du bizitzak. Aldaketa horren aztarna ziurrak edukitzea ezinezkoa den arren, gogoan dut irakasle batek esandakoak nolako ardura

eragin zuen nire haur izaeraren baitan. 10 urte inguru edukiko nituen, eta maisuak gutxi gorabehera (garai hartan gaztelaniaz noski) honakoa esan zigun: "Zuek zarete etorkizuneko gizartea, eta zuen esku geratuko da mundua". Hitz horiek entzun orduko nire baitan galdera beldurti bat hedatu zen: "Baina guk zer egin behar dugu munduarekin?". Aiton-amonen belaunaldirako pausoa eginda nago dagoeneko. Atzera begira jarrita, ez zen hain zaila izan "munduaren kargua hartzea", aurrekoek egindako bidea jarraitu genuen eta kito. Bestelako kontua da zer-nolako emaitza lortu dugun. 68ko Maiatzaren uhinek astindutako belaunaldia izaki, askatasuna eta duintasuna aldarrikatu genituen gaztetan, baina liberalismoaren haizea ideia

HAUXE BAI JENEROA!



subertsibo horiek sakabanatuz joan zen. Bizimoduaren inertziak bultzaturik, arima gorputzari saldu genion, eta justizia sozialarekiko begirada aratza bazkalosteko kafearen lurrinak lausotu zuen. Kontsumismoaren errotan murgildurik, kezka izpirik gabe baliabide naturalak xahutu ditugu, eta momentuko mesedearen kariaz, etorkizuna hipotekatu. Mundua gure eskutan geratu zen, eta gozotasunaz laztandu ordez, berarengandik zer aterako, atzamarkatu egin dugu.

Orain, egindako akatsez ohartuta, eta nolabaiteko konponbidea jarri nahirik, nire antzinako irakaslearen antzeko diskurtsoa zabaltzen hasi gara. Haurrei egozten diegu gure hutsegiteak zuzentzeko ardura. Etorkizunaren oinordeko

bilakatu nahi ditugu, munduko ekosistemaren zaintzaile eta justizia sozialaren gotorleku. Alabaina, ideien gandua gutxi egin dezake kontsumismoa bultzatzen duen neoliberalismoaren aurka. Eta ezinbestean, egungo haurrek ere aurrekoek egindako bidea jarraituko dute; gu garelako horien erreferentzia eta ispilu. Teoria aurrerakoiak eta horiekiko kontraesanak biltzen dituen arrago nahaspilatsua. Horregatik, helduon lana etsenpluaren bidez predikatzean datza. Iraganeko hanka-sartzeetatik ikasitakoa azaleraziz, baina ez hitz hutsez, baizik eta ekintzen bidez. Bestela, Ama Lurra gaurko haurren esku geratzen denean, guk eragindako zauriak orbaindu ordez, zornatu egingo dira. ■■■

ERREMATEA



RINA CABEZA

Despolitizazioaz

Egungo gizartean nabarmena da despolitizazioa. Politika instituzioetan soilik egiten den ideia erabat zabaldua dago, ohikoa egiten zaigu "ez dut politikaz ezer jakin nahi" entzutea.

Despolitizazioa gainditu egin behar dugu geure bizitzak determinatzen dituen guztiaz jabetu nahi baldin badugu. Despolitizazioak funtzio garrantzitsua betetzen du ordena sozial burgesean: antolamendu burgesa mantentzeko subjektuak erreproduzitzen ditu; esplotazio eta zapalkuntza harremanen eraginez langile klasean dauden subjektibitate azpiratuen arteko batasuna oztopatzen du, eta burgesiak hainbat mekanismo garatu ditu horretarako: ideologiak, kultura...

Heziketa politikoak helburu izan behar du sistemaren osotasun konplexuaz jabetzea, eta ez problematika partzialetara mugatzea. Formakuntzek berebiziko garrantzia dute. Tresna analitiko eraginkorrak behar ditugu inguruaz jabetzeko, historiatic irakaspenak atera eta aurrera begirako estrategia diseinatzeko.

Osotasuna borrokatuko duen subjektuaren beharra dugu problematika partzialtzat saldu nahi dizkiguten horiei aurre egiteko. Osotasun kapitalista gainditzeko. ■■■




"Arraroa da ikustea fenomeno hau gure proiektuak sortu duela"

BULEGO TALDEA

lbilbide motza du Bulego taldeak, baina bizia eta energiaz betea. Izurri betean zeruratu zen proiektua, baina ziurgabetasunez betetako egoera aprobetxatzen jakinda, bi urteren ostean musikaren aparretan da taldea. "Ez dago sekreturik, lan askoren emaitza da", adierazi dute taldeko bost musikariek.

Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.





Hegaldiaz gozatzen ari dira Tomas Lizarazu (Azkoitia, 1993)

abeslaria, Itziar Beitia (Azkoitia, 1982) teklista, Jon Larrañaga (Azkoitia, 1985) baxu jotzailea, Ruben Lizarralde (Azkoitia, 1970) gitarrista eta Xabier Arrieta (Azkoitia, 1994) bateria jotzailea. Bostak dira Bulego, eta ezin uka euskarazko pop eszenan fenomeno bihurtu direnik. Baikortasun doinuaz

iritsi dira entzuleen belarrietara, eta haurrak, gazteak zein helduak konkistatzea lortu dute. "Hori da talde bati gerta dakioken gauzarik ederrena". Igarotako azken bi urteak "entsegu" izan zaizkie, eta ikuskizunerako ordua iritsi zaie orain.

Bi urtetan bi EP eta disko bat kaleratu, hainbat sari eta izendapen eskuratu, kontzertu ugari eskaini eta aretoak bete dituzue. Formula irratien programazioak zuen abestiz bete dituzte, eta Euskal Herriko musika panoraman lekua egin duzue. Hori guztia tartean pandemia batekin. Non dago sekretua?

Tomas Lizarazu: Ez dago sekreturik, lan asko dago horren atzean; jardutea da gakoa. Gure artean



askotan komentatu izan dugun moduan, betidanik jendearekin konektatzera iritsi nahi izan dugu. Ez gara formula irratien bila joan, baina horrela suertatu da, eta gauza askoren emaitza izan dela uste dut: batetik, egindako ahaleginaren erantzuna da, eta bestetik, zorte kontua ere bai. Jendeari gustatu egin zaio gure musika, eta entzuleak konektatu egin dira gurekin.

Hastapenetara jota: 2019an sortu zenuten taldea, ordura arte Passepartout zen taldeko kide berberak. Hasieratik al zenuten garbi bidaia berria hasteko izena eta izana aldatzea beharrezkoa zela?

Jon Larrañaga: Ez genuen argi, baina egia da proiektu berri bat bagenuela. Musikalki abesti desberdinak sortzen hasi ginen, eta ikusten genuen inflexio puntu batek egon egin behar zuela. Zerbait globala izan behar zuela erabaki genuen; hau da, izenak, estetikak... guztiak aldatu behar zuela. Ezin genuen lehengoaren zati bat izaten jarraitu. Hutsetik hasi ginen bidea egiten, nahiz eta taldekideok berberak izan.

Pop musika egiten hastea ere garbi zenuten hasieratik ala berez sortu zen?

T. L.: Hasieran, entsegu lokalean, denetarik probatu genuen. Passepartouten estilo askotatik ari ginen edaten, eta guk ere ez genuen garbi nora iritsi nahi genuen. Bulegorekin, berriz, lanketa egin

genuen, eta zera galdetu genion geure buruari: "Zer musika estilorekin gozatzen dugu gehien? Zer da benetan gustatzen zitzaiguna?". Garai hartan, musika asko partekatzen genuen, eta pixkanaka taldea zehazten joan ginen. Hain zuzen ere, lehen diskoa grabatzen hasi baino pare bat hilabete lehenagorako bagenituen abestiak eta hitzak, baina oraindik zerbait zehaztea falta zitzaigun.

J. L.: Passepartout askoz ere esperimentalagoa zen. Estilo eta abesti desberdin asko lantzen genituen, eta egun egiten ditugun gisako abestiak konposatzen hastean jabetu ginen estilo oso ederra zela eta funtziona zezakeela.

Zeruratzear zinetela, ordea, izurritea iritsi zen, eta horrekin itxialdia. Nola gogoratzen duzue une hura?

Xabier Arrieta: Oso arraroa izan zen, musikarientzat ez ezik, herritar guztientzat. Ez genekien bi asteren edo bi urteren buruan igaroko al zen izurria, eta zentzu horretan, xelebrea zen egoera. Ikusten genuen mahaiaren gainean bagenuela produktu bat, eta bere horretan egoten uzten bagenuen, hil egingo zela. Beraz, pixkanaka abestiak kaleratzen joatea eta kantutoki bakoitzari bideo bat sortzea erabaki genuen. Horrez gain, sare sozialetan oso aktibo egon ginen, garai hartan jende asko zegoelako sarera konektatuta eta sare hori entzuleei musika helarazteko iturri bat zela



**"AHAZTU EGITEN GARA UNEAN
GERTATZEN ARI DENAZ; BIDEAZ ETA
HORI GOZATZEAZ. HORI DA BULEGO"**

**"KONTZERTUAK JOTZEKO FASEAN
GAUDE; ORAIN ARTE HORRETARAKO
TENPERATURA HARTZEN JOAN GARA"**

**"EGUN EGITEN DITUGUN GISAKO
ABESTIAK KONPOSATZEN HASTEAN
JABETU GINEN ESTILO EDERRA ZELA"**

uste genuelako. Zentzu horretan, ondo etorri zitzaigun itxialdia, jendeak gure musika pixkanaka ezagutzeko aukera izan baitzuen. Orain, atzera begira jarrita, igaro diren bi urteak entsegua izan dira guretzat, eta aurtun egingo dugu aurreneko benetako kontzertu bira. Orain etorriko dena ondo prestatzeko proposa izan da igaro duguna. COVID-19aren kontuari zerbait positiboa ateratze aldera, horixe nabarmenduko nuke.

Modu batera edo bestera, garai hori aprobetxatzen jakin zenutela uste al duzue?

T. L.: Aurreneko EPa grabatuta genuen izurria hasterako, eta itxialdia hasi zenean, pilak jarri behar genituela erabaki genuen. Izan ere, proiektuaren hasieran geunden, *Hegan* abestia kaleratuta eta kontzertu bakarra eskainita. Gure lanak apenas ikusi zuen argirik, eta egoera hartan, gure esku zegoen guztia egitea erabaki genuen, jakin bagenekielako bestela bidea orduan amaituko zitzaigula. Bulegoren identitatearen zati bat definitzeko modua ere orduan hasi zen; gaur egun, beharbada ez dago halako beharrik gauza edo ekintza desberdinak egiteko, baina gaur egun, musikaz aparte beste zerbait eskaintzeko filosofiarekin jarraitzen dugu oraindik lanean. Hein batean, konfinamenduak eta egoera arraro hark sortu zuen zerbait da hori.

Hegan abestia aipatu duzue. Paradoxikoa dirudien arren, pandemia betean, abesti horri esker egin zineten ezagun.

Ruben Lizarralde: Hori izan zen jendeari iritsi zitzaion gure aurreneko abestia. Bideoklipa kaleratu genuen, eta erreproduktzio mordoa izan zituen. Spotifyn ere asko entzuten zen; gure abesti bat hainbeste jenderi iristen zitzaion aurreneko aldia zen. Izugarri zabaldu zen abestia, eta horrek asko lagundu zigun, egia esan.

Hiru lan dituzue argitaratuta. Sei eta hiru abestiz osatutako bi EP, eta iaz kaleratu zenuten diskoa: *Erdian oraina*. Azken lan horretan, taldea pop estilora iltzatu dela esango al zenukete?

T. L.: Orain arte, bazegoen Bulegoren estiloa definitzeko halako intentzio bat, baina horretara orain iritsi garela iruditzen zait. Ez dakit hemendik urte batzuetara nolakoa izango den Bulegoren estiloa, baina uste dut disko horrekin lortu dugula soinuari dagokion profesionaltasuna ematea. Prozesuan bidelagun ugari izan ditugu, eta publikoaren aurrean bost lagun badaude ere, atzean lantalde handiagoa dago. Soinuari dagokionez, esaterako, Eñaut Gaztañagak Zestoan duen estudioan grabatzen dugu, eta elkarrekin

dugun harremana estutzen joan da denborarekin; hark gero eta hobeto jakin du gure ideiak islatzen, eta grabaketetarako konfiantza handiagoa daukagu orain. Bulegoren soinua topatzeko bidean, elkar elikatzen ari garela uste dut.

Diskoan unean unekoa bizitzearen garrantzia aldarrikatzen duzue. Era berean, abesti dantzagarriak eta baikorrak dira zuenak; alaitasuna transmititzen duzue. Hori al da zuen identitate zeinua?

T. L.: Musika jotzea hala bizitzen dugu guk ere; disfrutatu egiten dugu. Egia da abesti gehienak dantzagarriak direla, baina badago introspekzioa bilatzen duenik ere; *Gure izarrak*, *Bidean bertan*, *Malutak*... Disfrutatu egiten dugu musika egiten, eta *Erdian oraina* kontzeptuan jartzen dugu arreta: alaitasunetik aparte, momentua bizitzea nahi dugu. Izan ere, etorkizunera zein iraganera begira bizi gara maiz, eta ahaztu egiten gara unean gertatzen ari den horretaz; bideaz eta hori disfrutatzeaz. Guretzat, horixe ari da izaten Bulego esperientzia: pandemia baten erdian taldea sortu eta bizi esperientzia. Talde askorentzat gauza negatiboa izan da izurritea; galera handiak izan dituzte. Guretzat, berriz, beste esperientzia bat izan da, eta Xabik esan duen moduan, entrenamendua ere izan da. Orain kontzertuak eskaintzeko fasean gaude, eta aurretik, horretarako tenperatura hartzen joan gara. Pandemian ere askotan egon gara etorkizunera begira, gauzak berriz bere onera noiz etorriko ziren galdezka, baina guk zera esan dugu: zergatik ez oraina gozatu?

Zabaltzen duzuen positibotasuna al da egun publikoak behar duena?

J. L.: Baietz uste dut, eta zuzenekoetan oraindik eta gehiago, horixe baita kontzertu batera doanaren helburua: emanaldia ikustea eta unea gozatzea.

R. L.: Izan ere, zer ederragorik norbaiti ikuskizun ikaragarri bat eskaintzea baino? Zentzu horretan, jendearengana iritsi gara, eta askok esan digute gure kontzertuan izugarri ondo pasatu dutela, emozioak loratzen lagundu diegula. Hori egundokoa da niretzat.

T. L.: Kontzertuaren ondoren, jendearekin egoteko aukera izan dugunean, batzuek esan izan digute izurritean ezagutu gintuztela eta egoera salbatu diegula. Entzutea espero ez duzun gauzak dira horiek. Jendearen *feedback*-ak ahalbidetzen digu kontziente ez garen proiektuaren ikuspegiaz jabetzea. Egunerokoan abestiak egiten edota kontzertuak jotzen ari gara gu, baina pertsona bat aritu daiteke une txar bat igarotzen, eta gure abesti batek lagun diezaike hari. Harrituta geratzen gara

pertsona bakoitzak bere bizipen pertsonalak partekatzen dituenean egoerak hartzen duen dimentsioarekin; hori da musikaren indarra, eta oso polita da.

Musikaz gain, badago berezi egiten zaituzten beste ezaugarri bat: irudia. Kontzienteki erabaki duzue arlo estetikoa bere osotasunean zaintzea. Zergatik?

J. L.: Esan bezala, lantalde handia dago proiektuaren atzean, eta estetikari dagokionez, Eneko Aranbarrik laguntzen digu. Hark proposatzen dizkigu jantziak, eta guztia hari berari lotuta dago: hitzak, melodia, irudia...

Publikoak ulertzen al du hori?

T. L.: Ulertu baino gehiago, zeresana ematen du kontu horrek [barreak].

R. L.: Herriko jarduna da hori, baina uste dut zenbaitek ulertuko duela.

X. A.: Passepartouten eta Bulegoren arteko trantsizioan geundenean, nazioarteko talde asko jarraitzen genituen, eta talde horiek, musikaz gain, oso koherenteak ziren beste gauza asko egiten zituztela ikusten genuen: bideoklipak, argazkiak, jantziak... Hori asko gustatzen zitzaigun. Saiatzen gara New Yorkeko (AEB) edo Londresko talde batek egiten duena egiten, baina euskaraz. Iruditzen zaigu kanpora begira askoz ere interesgarriagoa dela hainbeste gauza lantzen dituen talde bat ikustea. Egia da, ordea, popa egiteko orduan zailagoa dela janzkera aukeratzea, oso irekia delako.

T. L.: Ikuspegi orokorra ematen diogu proiektuari. Lantalde osoak du proposamen artistikoa, eta musika da bizkarrezurra, baina hori inguratzen duen guztiak estilismo, irudi eta kolore jakin batzuk ditu.

Itziar Beitia: Proiektuari osotasun bat ematen dio, eta horrez gain, proiektua saltzerakoan, aurkezpenerako balio du. Gizartean horretara ohitu gara; guztia begietatik sartzen da egun, baita batzuetan musika ere.

Belaunaldi desberdinetako bost lagunek osatzen duzue Bulego, eta Passepartout baino lehen, talde askotan ibilitakoak zarete denok, bakoitza bere estiloan.

Taldeak hain anitzak izanik, nola egin duzue poperako fusioa?

T. L.: Alberto Martinez azkoitiarraren figura aipatu behar dugu kasu honetan. Izan ere, haren bitartez sortu genuen Passepartout; hark egin zituen fitxaje gehienak, eta hark izan zuen taldea sortzeko ikuspegia. Ondoren, atzerriara joan zen, eta guk gure bidea egin genuen, hasieran Passepartouten eta gero Bulegon.



Euskal Herrian ez dira asko popa euskaraz egiten dutenak. Bidea urratzen ari al zarete?

T. L.: Popa euskaraz egin izan duten talde asko izan dira gure aurretik: Ken Zazpi, Itoitz, Bide Ertzean... Egia da, ordea, gaur egun gero eta gutxiago direla euskaraz soilik abesten duten taldeak. Euskal Herrian garai ederra ari gara bizitzen musikari dagokionez, estilo mordoak lantzen duten talde oso desberdinak daudelako. Baina iruditzen zait gero eta talde gutxiago ari direla euskaraz soilik sortzen. Gu euskaraz hazi ginen, euskaraz bizi gara eta euskaraz irteten zaizkigu abestiak.

Euskal Herrian nola sumatzen duzue musikaren panorama?

X. A.: Oso une interesgarrian gaude, giroa anitzagoa eta ausartagoa delako, eta datozenentzat bide ederra egiten ari dira taldeak.

T. L.: Musika egiteaz gain, guztioi gustatzen zaigu entzutea, eta ni asko ari naiz gozatzen beste taldeak entzunez. Esaterako, Nogen folk amerikarra egiten ari da, Huntzak pauso bat aurrera eman du trikitiarekin, En Tol Sarmiento (ETS) popa eta tronpeta hotsak nahasten ari da, Merina gris elektronika gogorra egiten ari da...

Entzun nahi duzun guztia duzu, euskaraz eta bertan ekoitzia. Oso ederra da hori.

Udan, aretoetatik jaialdietara egingo duzue jauzi: EHZ festibala, BBK Live, Sonorama eta Donostia Festibalean arituko zarete. Salto kualitatiboa izango al da?

T. L.: Beti nahi izan dugu jendearengana proiektu desberdinekin iristea. Esaterako, izugarria izan zen Bilboko Kafe Antzokian publikoa gure abestiak kantatzen ikustea aretoa beteta zela. Arraroa egiten zaigu fenomeno hau gure proiektuak sortu duela ikustea. BBK Liven kartelean gure taldearen izena ikusteak ere sortzen digu halako zera bat barruan; izugarria da.

I. B.: Saltoa, kualitatiboa baino kuantitatiboa izango da. Izan ere, izan garen leku guztietan eman dugu dena, eta gauza bera egingo dugu jaialdietan ere. Ez dut uste jaialdietan jotzeak hobeak egingo gaituenik; esperientzia berri batera egokituko gara.

J. L.: Bi urte igaro ditugu eszenatokietan bakarrik jotzen; kontzertu batzuetan beste talderen batekin partekatu dugu agertokia, baina ia guztietan bakarrik aritu gara. Jaialdietan, berriz, talde asko izango gara, ikus-entzule batzuek ez gaituzte ezagutu ere egingo... Zentzu horretan, jende gehiagorengana iristeko aukera izango dugu.

X.A.: Urte bakar batean bost jaialditan egotea izugarria da bi urte dituen talde batentzat, are gehiago euskara hutsez abestuta; oso positiboa da. Badakigu ez dugula programazioetako ordu nagusietan joko, baina jotze hutsak izena ematen dio taldeari, eta formatu berrietara moldatzeko aukera eskainiko digu. Hainbat plazatan ere jo dugu, eta magikoa izaten da horietakoa ere.

Etorkizunera begira jarrita, non ikusten duzue taldea hamar urte barru?

T. L.: Hain barneratuta ari naiz unea bizitzen, gozatzen eta asimilatzen... Ez dakit zer esan. Urte batzuk barru gustatuko litzaidake Bulego punta-puntan egotea, taldeak entzuleekin konektatzen jarraitzea eta taldea musikarekiko ilusioa galdu gabe egotea, baina ez dakit bost urte barru hori erantzungo al dudan. Uneaz gozatzen eta gertatzen ari denaz kontziente izaten jarraitzea nahi dut. Izan ere, duela bi urte ez genukeen sinetsiko honaino ailegatuko ginenik.

I. B.: Egungo jarduna bakoitzaren lanarekin bateraezina izango zela pentsatuko genuen.

X. A.: Ni baikorra naiz. Duela bi urte esaten genituen gauza batzuk bete egin dira, eta beste batzuk betetzeko daude. Beraz, bidean ez goaz hain gaizki. ■■■

Lurraren kantua



KARI ALBERDI

Negua joan dela dio Zea Maysek, eta infernuan ate joka gabiltzala erantzuten du Gatibuk. Gauean freskura iristeko esperantzara kondenatuta dago Gari, eta Ken Zazpiri eusten dion soka aire girotuarena da ziurrenik. Vendettaren udako gauek luzeak izaten jarraitzen dute, beroak ez baitie lo hartzen uzten. Takolo, Pirritx eta Porrotxentzat bero-bero zegoena salda zen, baina errealtatean Lurra da (EH) sukarra duena.

Izan ere, hauxe da gure albistearen titularra: "Azken urteetan planetaren tenperaturak gora egin du etengabe". Azken urte horiek XIX. mendearen amaieratik, hau da, industrializazioaren garaitik gaur egunera artekoak lirateke, eta gure planetaren tenperaturaren igoera 1,2 gradukoa izan da zehazki. Ez dirudi aldaketa handia denik lehen begiratuan, baina bigarren begiratu batean, 2008aren bueltan denon burmuinetan txertatuta izan genuen melodia erreskatatu beharko genuke: "Pixka bat *es mucho*". "Pixka bat" hori asko baita Ipar Poloko hartz zurientzat, gero eta maizago suteak jasaten dituzten basoentzat edo gure besapeentzat. Guztiek pairatu dituzte-eta eraginak, bakoitzak bere neurrian.

Neurriak hartu direla diote albisteek Lurraren berotze kezkarriaren aurrean. Hartutakoak asko badira ere, betetakoak gutxi dira oraingoz, bete direnak egunkarien azalak, telebistako minutuak, ahoak eta poltsikoak izan baitira. Albiste horiek ez dira berriak, baina berriak txarrak dira. Denbora izanik poligrafo bakarra, Agenda 2021aren eskutik hazi ginenok Agenda 2030arekin egin dugu topo, egoera eskuetatik joan den seinale. Urtarrilaren leheneko asmo onak dira neurri guztiak, bigarren egunean martxan jarri ez direnean datorren urteko lehen egunerako utziak.

Joan den urteko udazkenean, batzuen iritziz hondamendiari aurre egiteko azken aukera izango zen COP26 klimari buruzko nazioarteko konferentzia egin zen. 26 konferentzia izan dira dagoeneko. 26 konferentzia, bakoitza bere hartutako eta bete gabeko neurriekin. 26 konferentzia, bakoitza bere urtarrilaren bateko asmo onekin. Horrek argi uzten digu askotan landutako gaia izateak ez duela esan nahi aski (eta egoki) landu denik, neurriak izendatze hutsarekin ondorioetatik aske gaudenik eta Lurraren azkenaren erantzuleak ezagutzen ez ditugunik.

Alaitz eta Maiderrek bazekiten ongi fabriketako keak direla zapuzten dutenak. En Tol Sarmientok badaki zerura begira ezin dela galdu denbora. Mikel Laboak badaki bizitza dela handiena eta galtzea litzakeela galtzea dena. Guk badakigu klima aldaketaren ondorioak izango direnak ez dituztela geldituko ondorengoen aldaketek. Hitzak gelditu eta ekintzak hasteko ordua dela. Orduan izango dugula zer kontatu albisteetan eta zer kantatu Lurrean. ■

**26 KONFERENTZIA EGIN
DITUZTE DAGOENEO,
BAKOITZA HARTUTAKO
ETA BETE GABEKO
NEURRIEKIN**



"Azkenengo irtenbidea izan beharko luke kartzelak"

JOSE MARI LARRAÑAGA ARRATS ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

Gizartean baztertuta eta egoera zaurgarrian dauden herritarrei baliabide sozialak eta juridikoak eskaintzeko sortu zuten azkoitiarrak eta Amaia Lasherasek Arrats elkarte. Presoei, etxegabeei, prostitutei... zuzendutako hamaika proiektu dituzte esku artean. Larrañagak, besteak beste, kartzelako eta presoan gaiak lantzen dituen Ateak egitasmoaren ardura du.

Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga**

Toki ezezaguna da kartzela. Bere larrutik ezagutzen du Jose Mari Larrañagak (Azkoitia, 1963) lau hormen artean zigortuta egotea zer den. Barruan zegoenean "inpotentzia eta eskubiderik eza" bizi izan zituen. Salhaketa, Askagintza eta beste elkarte batzuen laguntza jaso zuen orduan, eta behin kalean, egoera zaurgarrian eta baztertuta zeudenei laguntzen hasi zen, Arrats baliabide sozialak eta juridikoak eskaintzeko irabazi asmorik gabeko elkarte sortuta. Egun, elkartearen lehendakaria da, eta batik bat Ateak proiektuaz arduratzen da. Gazte zela utzi zuen sorterrria, eta egun Erreterian (Gipuzkoa) bizi da. Udalerri horretako Madalen jaietako txupinazoa botatzeko "ohorea" izango du, Arratsen ordezkari gisa.

Urte asko dira Azkoititik kanpo bizi zarela.

Bai, 20 urterekin-edo joan nintzen Azkoititik, arazoengatik. Heroinara katigatuta nengoen, erokeri horretan murgilduta bizi nintzen. Beste asko bezala, ero-ero sartu nintzen drogaren munduan. Azkenean, kartzelan bukatu nuen. Donostian Gizakia Helburun egon nintzen, eta kartzelatik irtendakoan, Donostialdean gelditu nintzen bizitzen, eta ordutik aurrera bizimodu lasaiagoa egin dut.

Kartzelaldian egin zenituen Arrats elkartearen sortzeko lehen urratsak, ezta?

Luzeako nengoen kartzelara zigortuta, kausa piloa nituen. Barruan egonaldi luzea egin beharko nuela gogoan, zerbait egin beharra nuela pentsatu, eta gure eskubideen alde mugitzen hasi nintzen. Garai hartan, intsumisoak sartu zituzten kartzelara, eta Martutene barruan pil-pilean zegoen gaia. Bi-hiru pertsona hasi ginen elkartzeko, intsumisoekin biltzen eta denak zirikatzen. Preso politikoak ere bazeuden, eta asanbladan elkartzeko hasi ginen hainbat lagun. Intsumisoak beren kontuarekin ari ziren mugitzen, baina preso sozialen babesa ere behar zuten ekintza batzuk egiteko; funtzionarioak distraitzeko, esaterako. Guk haiei babesa ematen genien, eta haiek estruktura pixka bat eman ziguten preso sozialoi. Hala, kausa baten erdian bukatu nuen beste baten zigorra, eta ez dakit nola, baina kalera ateratzea lortu nuen. Behin kanpoan, berriro kartzelara ez sartzeko dena ondo lotzen saiatu nintzen; ekintza sozialetan jardun nuen, Salhaketa elkartearekin, abokatuekin eta presoekin senideekin elkartzeko, presoek idatzitako eta izapideak egiten... Elkarteak puntu bateraino iristen ziren, eta behar bat bazegoela ikusi genuen. Horregatik, kartzelara bisitara etortzen zitzaidan Amaia Lasherasek eta biok Arrats elkarte sortu genuen, egoera zaurgarrian eta gizartean baztertuta dauden pertsonen, hala nola presoek, kale gorrian bizi direnei eta prostitutei, baliabide sozialak eta juridikoak eskaintzeko.



Kartzelan ikusitako hutsuneetatik abiatu zineten, orduan?

Bai. Beldur pila batekin sartzen zara kartzelara, eta behin barruan zaudenean jabetzen zara benetan han dagoenaz: eskubideak ezin landu, beti ezezkoak jasotzen dituzu... Garai hura, gainera, oso gogorra zen: alkohola sartzen zen, ezertarako eskubiderik gabe presoak oso erreta zeuden, droga piloa zegoen... Urte askoko espetxe zigorra nuen, eta egoera hura konpontzeko zerbait egitekotan hasi nintzen urratsak egiten, jakinda karteletako instituzioa oso indartsua dela.

Nolakoak izan ziren Arrats elkartearen hasierak?

Kartzelatik irtendakoan eraikuntzan hasi nintzen lanean, eta denbora librean, kartzela hor zegoela eta zerbait egin beharra zegoela aldarrikatzeko presoen eskubideen aldeko manifestazioak egiten hasi ginen espetxearen kanpoaldean. Presoei laguntzeko kartzelara mantak sartzen hasi ginen, eskutitzak idazten, abokatuekin harremanetan jartzen, epaitegietan kontuak mugiarazten, izapideak egiten... Gero, dirulaguntzak jaso ahal izateko, entitate juridiko gisa osatu genuen elkarteak. Gainera, elkarteak sortu genuenean, prostituzioari buruzko ikerketa bat egiten ari zen Amaia [Lasheras], eta ondorioz, prostituzioan aritzen direnentzako Aukera Zerbitzua ere sortu genuen. Orain, kontu hori pil-pilean dago lege berriarekin.

Zuretzako zer izan zen elkartearen sortzea eta beste batzuei laguntzen hastea?

Kartzelan nengoenean, eten egin nuen familiarekin-eta nuen harremana, niretzako eta haientzako onena hori zela uste nuelako; sufritzeko, hobe ni alboan uztea. Espetxean bakarrik nengoen, eta asko lagundu zidaten hara barrura sartzen ziren elkarteetako kideek: Askagintzako Txus Congilek eta Mikel Goenagak edota Balentxik. Niri laguntzera etortzen zen jendea, eta kanpoan nintzela, nik beste batzuei laguntza eskaini niezaiekeela pentsatu nuen. Aurrena neure gauzak lotu nituen, lana eta abar. Gero, besteei laguntzen hasi nintzen, astakeria galantak ikusten zirelako kartzelan; esaterako, pertsona bat hilabeteak eta hilabeteak preso egotea hark ez zeukalako epaileei emateko helbiderik. Gauzak lor genitzaizkeela ikusten nuen; batetik, pertsona bat barrura ez sartzeko; eta bestetik, barruan zen pertsona handik ateratzeko. "Niri lagundu didate, nik lagundu egin behar dut" pentsatuta ekin nion Arrats sortzeari. Elkarte txiki-txikia zen sorreran, eta asko hazi da. Egun, 50 pertsona ari dira lanean elkartearen, eta egitasmo asko ditugu esku artean.

Gizartean ikusezin edota ikusi nahi ez diren horiekin egiten du lan Arrats elkarteak: presoeikin, immigranteekin, prostituteekin, etxerik gabekoekin...

Bai, hala da. Presoei laguntzen hasi ginen; izan ere, hor dago kartzela, jendea haren ondotik pasatzen da, baina ez da ohartzen hormaz bestaldera pertsonak daudela eta horiek zer egoeratan dauden. Eta askok zera pentsatzen dute: "Merezi dute!". Prostituzioa ere lantzen dugu. Prostituzioaren gaineko era askotako diskurtsoak daude, baina emakume horiekin oso jende gutxik hitz egiten du, oso ezkutuan daude. Kale gorrian bizi den jendeari ez begiratuta ere hobe: "Itxura txarra daukate, edanda egoten dira...". Era horretako kontuak esaten eta pentsatzen ditu jendeak. Kale gorrian bizi diren hainbatek kartzelan amaitzen dute, eta espetxetik irten eta kale gorria edota psikiatrikora joaten dira. Biraka dabilen mundu bat da hori. Ingurura pixka bat begiratzea nahikoa da pertsona horiek hor daudela jakiteko, baina jendeak ez ditu ikusi nahi, arazoa direlako. Horietako askoren arazoa, orde, konpon daiteke. Ni "ezinezkoa" nintzen, baina bizitzan aurrera egin dut. Bizkaiko Gizakia Helburukoak hala esaten zidan: "Zu ez zara inoiz sendatuko, eta zure semea ere yonki bat izango da". Nire semeak inoiz ez ditu drogak hartu, eta teoriarik ni sendatu egin nintzen, nire bizitza egiten dut, lanean ari naiz, eta urte pila bat daramatzat horrela.

Baliabideak edota aukerak eskainiz gero konponbideak badirela esan nahi al duzu?

Bai, igoal, ez batek nahi duen neurrian, baina bideak badaude. Alkoholarekin arazoak dituen, buruko gaixotasuna duen eta kale gorrian bizi den pertsona batek, agian, ez du lana-eta aurkituko, baina bizitza zuzen dezake neurri batean, lasaia bizitza bai bera, baita bere ingurukoak ere. Aukerak emanda eta bideak jarrita hori lortu duten pertsonak badira. Ez da erraza izaten, aukerak eskaini arren, jende asko berriro erortzen delako, baina jaikiko da berriro. Drogak kartzelan utzi nituen nik, eta ziegan bertan nituen aukeran, egun batean "honaino!" esan nuen arte.

Erraza al da egoera gogor hori bizi duenari baliabideak eskaintzea?

Egoera gogorra bizi duen jendearekin egiten dugu lan, baina askotan, erabiltzaileekin baino gehiago nekatzen gara erakundeekin; izan ere, izapide asko egin behar izaten ditugu, burokrazia handia dago. Arratsek presoentzako nahiz kale gorrian edota baztertuta daudenentzako etxebizitzak ditu udalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin



"EGOERA ZAURGARRIKOEN PROFILA ALDATZEN ARI DA, UGARITZEN ARI DIRA BURUKO GAIXOTASUNAK"

hitzartuta. Guk, ordea, ezin dugu erabaki pertsona bat zein pisutara bideratu; erabaki hori hartzea gizarte zerbitzuen zeregina da. Azken boladan, egoera zaurgarrian dauden profila asko ari da aldatzen: buruko osasun arazoak ugaritzen ari dira, bai kalean, baita kartzelan ere. Kasu horietan, baliabide sozialen eta juridikoen beharra baino handiagoa da arreta soziosanitarioarena. Baliabide soziosanitarioak oso mugatuta daude, baina, eta kasu denak inklusioaren arlotik bideratzen dira. Arazo handia dago alde horretatik.

Arrats elkartearen lehendakaria zara, baina batik bat Ateak proiektuaren ardura duzu, ezta?

Denetarik egiten dut elkartearen, baina batez ere, kartzela eta presoak lantzen dituen Ateak proiektuan aritzen naiz. Kale gorrian bizi direnentzako eguneko eta gaueko zentro bana kudeatzen ditugu Donostian, eta horien gainean ere banago. Ateak programak presoekin egiten du lana, eta astero joaten gara Martuteneko kartzelara, hamabostero Zaballara (Araba), noizean behin Burgosera (Espainia)... Izan ere, Euskal Herrikan kanpo ere Gipuzkoako preso sozial zein politiko asko daude. Orain gutxi, gainera, espetxeekin lotutako kontu asko bere egin ditu Eusko Jaurlaritzak.

Zer balorazio egiten duzu horretaz?

Ondo dago, teoriarik polita da, baino asko kostatuko da. Diskurtsoa ondo dago: justizia errestitutiboa egitea, Euskal Herrian beste eredu bat sortzea... Politikoki ez da erraza, gauzak egiten ari dira, baina gehiago egin daiteke. Denbora beharko da ondo egiteko. Politikariek kontuan hartzen dituzte elkarteak, behintzat, eta ari gara Jaurlaritzarekin biltzen. Kartzela ez du ezagutzen gizarteak, ezta epaileek ere; epaileek ez baldin badakite herritarrak nora joatera zigortzen dituzten, nola jakingo du gizartearen gainontzeko zatiak zer den espetxea? Kartzela munstro oso handia da, eta aldatzeko ikaragarriko lana egin beharra dago.

Konponbidea al da kartzela?

Ez. Badakit ez dela kontu erraza, eta badirela nolabaiteko neurri batzuk ezarri beharreko delitu batzuk. Dena den, ni ez nago kartzelaren alde, eta ulertzen dut aldaketak egin behar direla. Kartzelak azkenengo irtenbidea izan beharko luke, ez lehenengoa.

Egun aurrenekoa al da?

Bai, bide errazena da. Egia da Eusko Jaurlaritza hirugarren gradua eta bestelako aukera gehiago ematen ari dela, baina epaileek ez dute begirada aldatu. Egungoa baino hobea litzakete justizia errestitutiboa edota beste eredu bat ezartzea, eta merkeagoa ere bai.

Izuriaren garaian konfinamentua ezarri zuten. Zuek kalean bizi den jendearekin lan egiten duzuenetz, zer-nolako egoerarekin egin zenuten topo?

Egoera eroa izan zen, baina gauza politikak ere bizi izan genituen. Kolpera iritsi zen konfinatu beharra, eta Donostiako zinegotzi batek elkartera deitu zuen bi egun barrurako etxegabeentzako toki bat egokitzeko eskatuz. Udalak Atano III.a frontoia prestatu zuen kale gorrian ziren herritarrentzako; 40 pertsona inguru espero zituzten, baina lehen egunean ia 80 joan ziren hara, bakoitza bere arazoekin. Haiek denak nahasian eta frontoi batean kudeatzea oso gogorra izan zen, eta udalari adierazi genion egoerari irtenbidea eman behar zitzaiola, hura lehertzearekin zegoen bonba bat zelako. Ondorioz, bi hostal ireki zituen udalak, eta haietara bideratu ziren etxegabeak. Hostaletara bideratutakoan ikusi genuen pertsona bati kalitatezko tratua eskaintzen diotzunean, haren erantzuna kalitatezkoa izaten dela; edaten zuenak utzi egin zion edateari edota edaten zuen kopurua asko jaitsi zuen, buruko gaixotasuna zuena medikatzen hasi zen... Udalari helarazi genion mezu hori. Ikasketa ona izan zen. ■



ZERBER

BURDINDECIA

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTIENTAKO GAIAK AURKUNTZA DITUZU
GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTUZTATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,
TORLOJUAK, EPRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA: 30 / 20720 AZKOITIA - 938 35 81 25
www.femteriazerber.com

Biziteko

GIPUZ KOA

5 PERTSONA

BIZIPEN

BIZITZAZU!



NON DAGO ZAKELMARI?

Ekaineko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatuta zegoen asmatu behar zen: 34. orrialdean zegoen ezkatututa.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Miren Arregi** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren

zortzi lagunentzako tarta.

Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekia zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna uztailaren 18a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolatega txurroekin eta terraza zabala.

ESKAINITZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





KALITATEZKO ETXEBIZITZAK **AZKOITIAN**
URBANIZAZIO PRIBATUAREKIN
ALTAMIRAN LANBIDE
HEZIKETAKO
APARKALEKUAN



JUIN BERRI
943 85 02 22
www.gruposorelor.com

"Antsietatea kudeatzen ikastea da garrantzitsuen"

IONE BRETÑA PSIKOLOGIAN DOKTOREA ETA IRAKASLEA

Betidanik gustatu izan zaio Ione Bretñari jendearekin hartu-emana izatea eta haien arazoei konponbidea ematen saiatzea. Batxilergoa hasi zuenetik argi izan zuen psikologia ikasketak egingo zituela. Gaur egun, psikologian doktorea ez ezik, ikerlaria eta irakaslea da EHU, Donostiako Psikologiako fakultatean.

Testua: **Miren Elorza**. Argazkia: **utzitakoa**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Psikologian lizentziatua da Ione Bretña (Azkoitia, 1990). 2013. urtean amaitu zituen ikasketak, eta ondoren, Osasun Psikologia Kliniko Orokorreko masterra egin zuen, psikologia klinikoaren esparruan haurren eta helduen buruko nahasteen arloan sakonago espezializatzeko asmoz. Bulego batean pazienteak artatzen imajinatzen zuen bere burua, hasiera batean ez baitzitzaion burutik pasatu ere egiten doktoretzaren eta ikerketaren munduan sartzea. Ermuan (Bizkaia) izan zuen bere kontsulta denboralditxo batez, eta autonomoen bizitza "oso gogorra" dela konturatu zela azaldu du. Ondoren, bitan saiatu zen osasun zentroetan lan egiteko BAPE (Barneko Psikologo Egoiliar) plaza ateratzen, baina horretarako zorian geratu zen, eta beraz, Psikologian doktoretza tesia egitea bururatu zitzaion. Bide horretan, tesia egiteko modurik egokiena beka bat lortzea dela dio Bretña: "Tesia egin dezakezu lau edo bost urtetan ezer kobratu gabe, baina beka bat lortuta egiten da

normalean, azken finean, egin beharrekoa lan baten antzekoa baita; ordu asko eskaini behar zaizkio". Bretña Eusko Jaurlaritzaren beka lortu zuen 2017an: "Agian, batzuek ez dakite tesia egiten duzun momentuan ez zaituela unibertsitateak kontratatzen; beka bat lortzea ezinbestekoa da, Eusko Jaurlaritzarena, Euskal Herriko Unibertsitatearena edo Espainiako Ministerioarena".

Tesian, bikote harremanen arteko gatazkak izan ditu aztergai azkoitiarrak. *Atxikimenduaren eragina harremanetan: kulturala, diadikoa eta genero hurbilketak* da lanaren izenburua. Bikote harremanen arteko gatazketan, bikotekide bakoitzak zer estrategia mota erabiltzen duen aztertzea izan da haren lana. Bretñaren arabera, estrategia mota bat izan daiteke gatazka bera saihestea, eta beste bat, berriz, bere horretan utzi ezinda, erantzun eske jarraitzea modu grinatsuan edo lehiatsuan. Lehen taldekoak "atxikimendu ekiditzailea" multzoan sartzen ditu azkoitiarrak, eta bigarrenak, berriz, "atxikimendu antsiatian".



Psikologoaren arabera, bakoitzak, bere izateko moduaren arabera, gatazka bati aurre egiteko estrategia desberdinak erabiltzen ditu, eta bata erabiltzen duen estrategiak bestearengan du eragina, sorgin-gurpil bat sortuz; horrek indarkeria "eskalatzen" joatea sor dezake. "Atxikimendu ekiditzailea duten pertsonak beren espazioa behar izaten dute. Bikotea afektibitate bila dabilela –gehiegizkoa betiere– eta bera ez dagoela hori kudeatzeko prestatuta antzematen dutenean, ez dira eroso sentitzen, eta distantzia bat mantentzen dute beti. Saihestea oso frustragarria denez, bikoteak are gogorrago erantzun dezake, eta horrek gatazka areagotu egiten du".

Gauza "txikietatik" abiatuta gatazka bortitz batera nola irits daitekeen aztertzea izan da azkoitiarraren lanaren helburuetako bat, eta zenbait bikote harremanetako indarkeria psikologikoak jatorrian atxikimendua izan dezakeela uste du: "Nire bikotekideak eztabaida batean ihes egiten badu, nik, agian, ez dut jakingo nire frustrazioa kontrolatzen, eta iraindu egin dezaket, 'beti gauza bera egiten duzu' edo 'ez nauzu ulertzen' esaldiak esanda; hor astindu psikologiko bat garatu daiteke". Indarkeria mota guztiak hasten dira txikikerietatik, eta horien jatorria ondo aztertzea garrantzitsua dela iritzi dio ikerlari azkoitiarrak. Bikoteetan jazotzen den indarkeria "egunero" agertzen da komunikabideetan, eta maiztasun horrek zein inguruan gertatzen diren bikoteen arteko gatazkek bultzatu zuten Bretona gaiari buruz doktoretza tesia egitera.

Gizartean psikologia beharra

Iazko ekainean bukatu zuen tesia, eta orain irakasle lanetan ari da EHUn. Bi urteko ordezkapen partzial bat ari da egiten, eta azken lauhilekoan Psikopatologia ikasgaia eman die graduako bigarren mailako ikasleei. Unibertsitatara iritsi arte irakasle izatea horrenbeste gustatuko zitzaionik ez zuela sekula pentsatu dio Bretona. Ama ere bada azkoitiarra, eta lanean ordezkapen partziala edukitzeak zein ondo antolatzeak lanaren eta familiaren arteko oreka izaten laguntzen diola adierazi du hark. Dena den, hori laguntzarik gabe ezinezkoa zatekeela esan du: "Haurrak haurtzaindegira, amonarengana edo senarrarengana eramanez, ezinezkoa litzateke".

Bizi garen mundua egunetik egunera geroz eta estresagarriagoa dela uste du Bretona, eta estresak ez ezik, gizartearen bat-bateko abiadurak eta ezarritako dauden kanonen eta estereotipoen barruan bizi beharrek pertsonengan antsietatea eragin dezakeela dio. Antsietatea bada psikologo baten kontsultara joateko arrazoia, eta beraz, azkoitiarraren hitzetan, hori da psikologia gizartean geroz eta onartuago egotearen zioetako bat. "Lehen, 'ez dugu inorena joan behar gure trupu zaharrak kontatzera' izan ohi zen bikoteen artean nagusitzen zen pentsamendua. Orain jendeak laguntza gehiago eskatzen duela nabari da, eta horrek normalizatu egiten du psikologoon rola".

Buruko nahaste batzuei aurre egiteko tratamendua medikazioarekin osatzearen aldekoa da azkoitiarra; nahaste psikotiko baten eraginez haluzinazioak, eskizofrenia edo nahaste bipolarra dutenen kasuan, hain zuzen ere. Beste nahaste mota batzuetan, ordea, garrantzitsua arazoaren hondoraino iritea dela dio psikologoak. "Botika bat hartzeak une zehatz batean lagun dezake, baina garrantzitsua gatazka sortzen dizun hori ondo kudeatzen ikastea da. Adibidez, azterketa garaian antsietatea sor dakioken norbaiti botikak lagun diezaioke antsietatea momentuan baretzen, baina premiazkoena da antsietatea zerk sortzen dion atzematea eta hori maneiatu ahal izatea; hau da, egoera hori sortzen dien pentsamenduen atzean zer dagoen jakitea garrantzitsua da. Horretaz jabetu eta horretatik ikasi egin behar da". ■■■

Ione Bretona

- **Adina:** 32 urte.
- **Ikasketak:** Psikologian lizentziaduna, Osasun Psikologia Klinikoko Orokorreko Masterra eta Psikologian Doktoretza.
- **Psikologian doktorea eta unibertsitateko irakaslea ez banintz...**
Kontsultan lan egingo nuke, psikologo gisa.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**
Umeei ibiltzea, izan parkean edo lagunekin kafe bat hartuz...





ASKE MAITE
ASKE BIZI!

bertako
igogailuek | ascensores

www.bertoko.eus

GIPUZKOA 943 903 450



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak
domino-zati honek zentzua izan dezan.



Elementu hauetatik guztietatik bat zortzi aldiz
ageri da eta beste elementu bat soilik behin.
Zein dira? Eta zenbat lanperna daude?

Itsaski Festa



Hemen buru bakoitzak zorri bana du eta hizketan
ari dira, baina zer diote? Erabili hizki-marrazki
alfabetoa eta erraz ulertuko duzu.

ZORRI HIZTUNAK




Itzala

Hondarretan gazteluak egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?



BadonK 13

Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmakak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste samar dago eta.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Ezkontza bueltako kontuak (II)

TESTUA: **KEPA ALBERDI**

Aurreko atalean ezkon aurreko usadioen gaia jorratzeko ahalegina egin ondoren, oraingo idatzian eztei zeremoniaz eta ondorengo errituaz Azkoitian urte askotan izan ziren usantzak ezagutuko ditugu.

Horieta bat eztei zeremonia ospatuko zen elizara egiten zen segizioaren ohitura da. Usadio hori XX. mendeko bigarren erdialdera arte ezagutu zen, eta normalean, andregaiaren etxetik abiatzen zen segizio hura bi multzotan banatzen zen; bata emaztegaiaren inguruan, eta bestea, senargaiaren bueltan, bakoitzaren lagunek osatuta eta musika giroan. Zeremonia herrian bertan edo hemendik gertu izaten zen, inora joateko garraio egokirik ez baitzen izaten, eta horren ondorioz, parrokan, Loiolan, Madariagan, Urrategin, Martiritan edo hurbileko beste eliza batzuetan ezkontzeko ohitura zegoen. Hari beretik, aurreko mende erdi aldera arte auto gutxi zegoenez, askotan, baserrietatik taxian joaten ziren ezkongaiak elizara.

Elizkizuna bukatutakoan, emaztegaiak lore sorta oparitzen zion Azkoitiko eliza edo kapera bateko Amabirjinari. Beste batzuetan, ezkontzan erabilitako lore sorta senarraren familiaren hilobian uzten zen. Ohitura horrekin

lotutako beste antzeko usadio bat ere bazen: emazteak familia berriaren eliz hilerriaren edo jarlekuaren jabetza hartzen zuen, eta ordutik aurrera etxe berriko hildakoei eskaintzak egiteko ardura izaten zuen hark. Erritu hori ezteien ondorengo igandean egiten zen, eta "eliz hartzea" edo "sepultura hartzea" izenez ezagutzen zen. Elosun, esate baterako, aurreko mendeko hirugarren hamarkadan, ezkon ondorengo igandean, "amenezaxua" izeneko meza egiten zen, eta bertan, emazte ezkonberria bere senarraren familiak elizan zuen hilobiaren gainean kokatzen zen, eta ofrenda bezala, etxean egindako "olatia" izeneko opila eman eta horretarako prestatutako saskian uzten zuen. Mezak irauten zuen bitartean argizaiola pizten zuen, eta apaizak hildakoengatik erresponstua ateratzeko "txakur haundia" edo hamar zentimokoa jartzen zuen. Segidan, ezkon berrien etxean "kontraezteiak" izeneko bazkari berezi bat egiten zen, horien familia banaren artean.

**EZKONTZAN
ERABILITAKO LORE
SORTA SENARRAREN
FAMILIAREN HILOBIAN
UZTEN ZEN**

Ezkontza zeremoniak liturgia jakin bati jarraitzen zion, eta errituaren barruan bi ekitaldi bereizten ziren: ezkontza elizkizuna eta ezkondu ondorengo jaia. Garai baten, eliz ospakizuna elizaren ate aurrean egiten zen, bertan baimena eman eta diru eraztunak bedekintuz, hori baitzen zin sakratuak egiteko izendatuta zegoen tokia. Antzina, kasu askotan, andregaiak bakarrik eramaten zuen eraztuna, eta hori lortzeko modurik ez zuten etxe pobreetakoek beste norbaiti eskatzen zioten. Elizkizunean erabili ondoren, berriro ere jabeari bueltatzen zioten. Aurreko mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hasi ziren ospakizun hori eliz barruko aldare nagusiaren aurrean egiten. Zeremonian zapi bat ipintzen zen emaztegaiaren buruan eta senargaiaren sorbaldan, bien uztarketaren seinale moduan. Normalean, elizkizuna astegunez egiten zen, eta hainbesteko garrantzirik ez izatean, gonbidatu gutxi izaten zen; horrez gain, eguneko betebeharrak ere ez ziren eteten. Ezkontza, egun berean edo beste egun batean egiten zen, bazkaria alderantziz, ospakizun handia izaten zen.

Ezkongaien janzkerari dagokionez, oso aspaldiko erabakia da, XVII. mende hasierakoa hain zuzen ere,



Etxezakortako maioralgoaren ezteiak, 1932. urtean. UTZITAKOA

elizan sartzeko emakume guztiek mantelina janztea derrigorrezkoa zutela esaten zuen agindu ofiziala. Ohitura hori aurreko mendeko hirurogeigarren hamarkada arte ezagutu zen Azkoitian. Ordura arte, emaztegaia beltzez edo kolore ilunez janzten zen, eta osagarritzat meza liburua eta arrosarioa eramaten zituen. Ordutik aurrera jantzi zuria eta lore sorta nagusitu dira emaztegaiaren janzkeran. Era berean, senargaiak, traje beltza edo marra urdindun txalekoa,

ehunezko alkandora zuria gorbatarekin eta trajearen poltsikoan zapi zuria eramaten zituen; geroztik kolore argiagoak erabiltzen ditu hark. Bestalde, ezkontzara gonbidatutako emakumeek beti izaten zuten arropa edo osagai berriren bat han estreinatzeko, baina ez gizonezkoek; horiek jaietan normalean janzten zituzten arropa berberak jantzita agertzen ziren.

Ezkontza zeremonia amaitu ondoren, segizioa edo jarraigoa egiten zen, normalean, gizon

ezkonberriaren etxera, gurasoak han egoten baitziren elizan izandakoaren zain, eta bitarteko bide horretan ez ziren falta izaten musika eta "txapleruak". Ondoren, aurrez atondutako bazkariaren momentua heltzen zen, nahiz eta batzuetan, hurrengo igandean egiten zen, eztei bidaia labor baten ondoren. 1950era arte, eztei bazkaria etxean egiten zen, eta handik aurrera jatetxeetan egiteko ohitura zabaldu zen. Etxean egiten zen garaian, ezteiak egun batez zein hiru

egunez luza zitezkeen, beti ere sendiaren diru baliabideen arabera. Bazkaria atontzeko animaliak bezperan hiltzen ziren, eta bi edo hiru egun lehenago hasten ziren jaki goxoak prestatzen. Ospakizunean pertsona asko bilduko bazen, auzokoei eskatzen zitzairen ontziteria, eta etxekoekin batera, inguruko emakume sukaldarien laguntzarekin atontzen zen denen gustukoa izan behar zuen bazkari berezia. Eztei bazkaria jatetxean egiteko ohiturak indarra hartu zuenean, Kiruri ondoko Amenabar, Kiruri bera, Olaberri, Errezil, Madarixako taberna, Alameda eta beste jatetxe gutxi batzuetan ospatzeko ohitura nagusitu zen. Garai bateko eztei bazkarietan, oilaskoa eta legatza izaten ziren plater nagusiak eta estimatuenak, baina izaten zen bestelako jaki goxorik ere, eta edatekoa franko. Bazkariaren tartean apaiza ezkonberrien artean esertzeko usadioa ere aspalditik dator, eta ondorengo dantzak ere haren zaintzapean egiten ziren beti, batez ere dantza lotua egitea debekaturik zegoenean.

Eztei bidaia, senideak bisitatzeko
Ezkondu ondoren, eztei bidaia egiteko momentua heltzen zen, baina hori ez zuten bikote guztiek egiten. Alde batetik, lehen ez zen sentitzen ezkon bidaia egiteko premiarik, eta

bestetik, gastua zen, eta ezkontza berak nahiko diru jario eragiten zuen aurretik ere bikote askorengan. Aurreko mendean ohikoa zen ezkon bidaia baliatzea herritik kanpora zen familiako moja edo apaiza edota neba-arrebaren bat bisitatzeko. Haien etxeetara joaten ziren askotan, han pare bat egun igaro eta atzera etxera bueltatzeko. Bidaia hori normalean trenez egiten zen, eta Donostia, Bilbo edo hemen ondoko beste hiriburuak ziren normalean bisitatuenak, baina baziren Madrilera, Bartzelonara edo Sevillara joandako ezkonberriak ere.

Ezkontza bueltako errituei begira jarrita, bada duela hamarkada batzuk arte ohikoa zen beste zeremonia bat ere: ezkontzen zena baserriko maiorazkoa bazen eta senargaiak haren baserrira ezkondu behar bazuen, hark arreoan eramaten zuen baserrira dote moduan, normalean ezkondu eta gero. Tradizioz, oso gazterik hasten ziren neskatoak, amaren laguntzarekin, jostun lanetan jardunez beraien arreoan

ALARGUN GERATZEN ZIRENEK LUZATU EGITEN ZUTEN BIGARREN EZKONTZA, ZUHURTZIAGATIK

osatzen, eta hori urtetako lanaren emaitza izaten zen. Beste gauza batzuen artean, etxerako oihal mota guztiak, izarak, toallak eta barruko arropak prestatzen ziren, eta horiekin batera altzariak eramaten ziren etxera: besteak beste, oheak, armairuak, mesanotxeak, komodak, mahaia, artilez egindako koltxoak edota arkoia. Emaztegaiak etxeko gela bat prestatzen zuen arreoan lagunei eta ezagunei erakusteko, eta bertan zeuden arropa, altzari, tresna eta bestelakoak zerrenda baten apuntatzen ziren, ezkontzara gonbidatutakoen ohiko opariak gehituz. Arreorako, apaingarritz hornitutako gurdi handiak erabiltzen ziren, eta zenbat eta gurdi gehiago bete, orduan eta maila edo kategoria handiagoarekin agertzen zen emaztea herritarren aurrean. Horrela, herritarrentzat erakargarria izango zen arreoan prestatzen zen, eta jendea jakin-min handiz bide bazterretara hurbiltzen zen arreoaren jarraigoa ikustera. Ibilbidean zehar, ahalik eta soinu handiena ateratzen saiatzen ziren, eta suziri leherketak eta gurdiei ipinitako zintzarriak ateratzen zuten zarataz gain, gurdien erroberen ardatzek ere halako txistu berezi bat ateratzeko modua topatzen zuten: "Gurdiak kantau ein behar dik", esaten zuten garai hartan. Gurdian,



Arreoko altzariak. UTZITAKOA

oheak, ispiluak eta goruak toki berezia izaten zuten, denak ikusteko moduan, baina ez horrela etxerako ontziak, horiek eramateko asto bat jartzen baitzuten askotan gurdiairen aurretik.

Bukatzeko, ezkontza bueltan baziren gaizki ikusitako jarduera bat baino gehiago ere, eta horietako bat alargun geratzen zirenei zegokien. Izan ere, alargun geratzen zirenek, gizonetakoek zein emakumeetakoek, bigarren ezkontza luzatu egiten zuten zuhurtziagatik, ez baitzegoen ondo ikusia berriro ezkontzea gutxienez urtebete pasatu arte. Aldi hartan esaten zen alargunek ez zutela ezkondu

behar harik eta senarraren heriotzagatik familiaren hilobian pizten zen kandela itzali arte, eta hori hamahiru hilabetez pizten zen. Haurdun ezkontzen ziren neskek ere baziren, eta horiek ere bereak eta bi pasatzen zituzten jendearen jarduna zela eta. Haiek jantzi nasaiak eta faxak erabiltzen zituzten sabela ezkutatzeke, eta ezkontza isiltasun handiengan egiten zuten. Bazen umea bere amarena zela esaten zuen neskarik ere.

Azkoitian errotuta zeuden eztei zeremonietako eta ondorengo erritu batzuk azalduta, ziur nago urteetan aurrera doazen herritarrei ez

zaizkiela oso urrutikoak egingo kontu zahar horiek, asko beraiek zuzen-zuzenean bizitakoak izango baitira. Herriko gazteek, berriz, oso modu desberdinean barneratuko dituzte usadio horiek, eta mendeetan atzera egiten dutela irudituko zaie haiei. Izan ere, hainbeste gizaizkidan ezagutu eta sinesmen osoz praktikan jarri diren erritu asko bertan behera geratu dira hamarkada gutxitan, eta orain, antzinako usadio haien memoria gordetzea besterik ez zaigu geratzen, gure ondorengoek ere ezagutu eta jakitera eman ditzaten beren arbasoen ohitura zaharrak. ■

Errimak, harrobia eta zaletasuna

Dozenaka lagun dabilta Erriarraitz bertsozale elkartearen Azkoitiko bertso eskolan. Bertsolaritza "osasuntsu" dagoen diziiplina dela diote Haritz Garmendia bertso eskolako irakasleak eta Naia Arrizabalaga zein Onditz Alberdi ikasleek. Ezagutzatik haratago doan esperientzia eskaini die bertso eskolak horiei.

Testua eta argazkiak:
Anartz Izagirre.

Bakoitzak nahi duen doinura eta neurrira egokitzen da Erriarraitz bertsozale elkartearen Azkoitiko bertso eskola. Bistakoa da bertsolaritzak ikusmina sortzen duen herria dela Azkoitia, eta horren erakusle da herrian izaten diren saioak ikustera joaten den jende kopurua. Oholtzaren atzealdean ere badago harrobia. Antonio Zabala idazleak herrian izandako hainbat bertsolariren izenak bildu zituen 1970eko hamarkadan argitaratu zuen *Azkoitia'ko zenbait bertsolari* liburuan; egun, beharbada, mardulagoa litzateke liburu hori. Izan ere, amaitu den ikasturterako adin guztietako 50 ikasle inguruk eman zuten izena, eta ikasturtean zehar bertsotan ez ezik, bertsolaritzaren gainean gehiago jakiteko abagunea izan dute horiek. Hala dio irakasle lanetan aritu den Haritz Garmendiak (Azpeitia, 1991): "Bertsolaritzan helburu batzuk jartzen ditugu; batetik, horiek lortzeko jarduerak egiten ditugu; eta, bestetik, bertsolaritzaren bidez, kultura bere osotasunean barneratzeko aukera aprobetxatzen dugu".

Naia Arrizabalagak (Azkoitia, 2004) eta Onditz Alberdik (Azkoitia, 2005) urteak daramatzate bertso eskolan, txiki-txikitan hasi baitziren eskoletara joaten. Saioak "bakoitzaren beharretara" egokitzen direla dio Arrizabalagak. Izan ere, hura Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketarako prestatzen ibili da zenbait klaseetan, adibidez, eta txapelketa prestatzeko ordu gehiagor aritu dela ere nabarmendu du. Aurten plazetan kantatzen hasi da Arrizabalaga, eta horiek "gustura sentitzen den leku bat" direla aitortu du. Alberdik, oster, oraindik



ez du bere burua plazetan ikusten, eta argi du zein den bertso eskolara joateko duen motibazioa: "Nire burua ez dut plazetan ikusten; klaseetara etorri eta ondo pasatu nahi dut".

Bata irakaslea eta besteak ikasleak izanagatik, denek dute eskoletan ikasteko parada; ikastetik haratago, aisialdirako momentua ere izaten da denentzat. "Aitzakiarekin afariren bat edo beste ere egin izan ditugu", diote barrez. "Bertso eskola guretzat ez da bertsotan egiteko lekua bakarrik, zapatuetako kontuak kontatzeko, elkarri adarra jotzeko eta penak partekatzeko lekua ere bada", azaldu du Arrizabalagak. Bat dator horrekin Alberdi, eta atsedean hartzeko lekua ere badela gehitu du: "Astean ordubetez joaten gara bertso eskolara, eta kanpoko kontuetatik deskonektatzeko ere aprobetxatzen ditugu saioak". Garmendiak lehen urtea egin du Erniarraitzeko bertso irakasle lanetan, eta "esperientzia oso polita" izan dela nabarmendu du: "Belaunaldien arteko transmisiorako eta, oso ederra izan da klaseak ematea". Hark ikasleen bilakaeran egin du azpimarra: "Ikasleak kopla batzuk abesten hasi eta ikasturtearen amaieran bertso bat osatzeko gai direla konturatzen zara".

Etorkizuna duen diziiplina

"Ume asko aritzen dira eskoletan, eta iruditzen zait ikasle batzuek orain duten adinean nik ez nuela horrela egiten bertsotan. Bertsozale Elkarte sekulako lana egiten ari dela uste dut, adibidez, metodologia berriei bertsotan irakasten", azaldu du Garmendiak.

**NAIA ARRIZABALAGA:
"BERTSO ESKOLA
GURETZAT EZ DA
BERTSOTAN EGITEKO
LEKUA BAKARRIK"**

**HARITZ GARMENDIA:
"BELAUNALDI ARTEKO
TRANSMISIORAKO-ETA
OSO EDERRA IZAN DA
KLASEAK EMATEA"**



Ezkerrean, abesten, Naia Arrizabalaga, eta eskuinean, Onditz Alberdi.



**ONDITZ ALBERDI:
"NIRETZAKO OSO
GARRANTZITSUA DA
BERTSO ASKO
ENTZUTEA"**

**HARITZ GARMENDIA:
"BERTSOTAN IKASTEAZ
APARTE, ZEHARKAKO
KONPETENTZIAK ERE
LORTZEN DIRA"**

Ekainaren hasieran egin zuten ikasturte amaierako jaialdian, ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten bertso ikasleek, eta ekitaldi hartan bertsotan zuzenean egiteko aukera izan zutela azpimarratu du azpeitiarrak. "Bertsolaritzan lortu dena ez da egun bateko kontua izan, jende askok lan asko eta lan hori ondo egin duelako da".

Bertsotan aritzeko zer gaitasun behar diren galdetuta, teknika ikas daitekeen zerbait dela argi du Alberdik: "Egongo dira jaiotzetik gaitasun handiagoa izango duten batzuk, baina bertsotan aritzen ikasi egin daiteke". Horretarako, osagai garrantzitsu bat nabarmendu du: "Niretzako oso garrantzitsua da bertso asko entzutea. Guk bertso batzuk ulertu ere ez genituen egiten lehen, eta orain zer kontatzen duten kontziente gara eta beste era batera ulertzen ditugu". Garmendia bat dator Alberdirekin: "Memoria izan behar duzu, eta bertso asko entzutea garrantzitsua da estruktura barneratzeko. Horrez gain, errimak landu behar dira, arrazoiak ere bai, horiek nola tolestu jakin... Hizkuntza bera lantzen jakin behar da, eta hori irakasten saiatzen gara klaseetan".

Arrizabalagak dio euskara aldetik "asko edaten" dutela. "Azkenean bertsolaritzak esparru desberdinetara eramaten zaitu, eta hainbat gai ukitu behar dituzu. Egunerokotasunak jartzen dizkizu jakin behar dituzun gai batzuk, baina beti ezin duzu goia jo; behea jo behar da goia jo ahal izateko. Egia da hori lortzea ez dela egun gutxitako kontua, eta oraindik ere asko dugula ikasteko; formakuntza ez da inoiz bukatzen". Hain zuzen ere, bertsotan ikasteaz aparte, hori da bertso eskolan lantzen duten beste alderdietako bat, Garmendiaren esanetan: "Bertsotan ikasteaz gain, zeharkako konpetentziak ere lortzen ditu ikasleak: hizketarako gaitasuna, entzutekoa, sortzekoa... Bizitzarako baliagarriak diren gaitasun asko lantzen dira bertsotan eginez, eskolarako, lanerako edo jendaurrean aritzeko balio dutenak".

Bertsolaritza, "osasuntsu"

Bertso eskola ez ezik, bertsolaritza bera herrian eta bailaran osasuntsu ikusten dute bi ikasleek zein irakasleak, izan bertso



afariak, txapelketak zein bestelako bertso saioak. Afariak, esate baterako, ederki ezagutzen dituztela azaldu dute. Hala dio Garmendiak: "Afariak asteroko ogia dira guretzako. Bi astez behin-edo izaten dugu halakoren bat, eta hemen inguruan asko mugitzen gara". Hark gehitu duenez, kalean "mordoa" entzuten da bertsoa, eta "oinarri ona" izanda, "bertsolari onak" aterako diren esperantza du: "Bailarak oso ondo erantzuten du, antolatzen ditugun bertso ekintza guztietan jasotzen dugun erantzuna oso ona izan ohi da". Bilakaera hizpide, azken urteetan bertsolaritzan igarri den beste ñabarduretako bat emakumeen presentzia izan da. Garmendiak dioenez, Azkoitiko bertso eskolan ez dago desberdintasun handirik nesken eta mutilen kopuruari dagokionez.

Sarri askotan bertsolaritzarekin lotu ohi diren aurreiritziez eta usteez ere aritu dira hizketan. Bertsolaritzak eta hizkuntzak duten lotura estua izaki, jendeak ikasketa konkretu batzuekin lotzen dituela diote. Kazetaritza ikasketak egiteko asmoa du Arrizabalagak datorren ikasturtean, eta berak aurreiritzi hori betetzen duela esan du, barrez: "Badira, halere, bertsotan oso ondo dakiten eta bestelako ikasketak dituzten bertsolariak". Alberdik ere hala dio: "Bertsotan arituz gero, Euskal Filologia ikasi behar dugula uste dute askok".

Behin ikasturtea amaituta, datorren sasoia dute buruan Erniarraitzen bertso eskolako kideek, eta Garmendiak adierazi duenez, irailean hasiko dira prestakuntzarekin eta klaseen antolakuntzarekin. Alde batetik, lehenbizi, motibazio klaseak eskainiko dituzte herriko eskoletan, urtero egin ohi duten moduan. Era horretan, ikasleek bertsolaritzaren berri izan dezaten nahi dute Erniarraitzeko kideek, gustatzen baldin bazaie ikasturte berrian bertso eskolan izena eman dezaten horiek. Helduentzako matrikulaziorako deialdia ere orduan egingo dute, eta bakoitzaren mailaren arabera osatuko dituzte taldeak, bakoitzak nahi duen doinuaren eta neurrian, mikrofonoari kolpe egin diezaioten. ■■■

Azkoitiko bertso eskolako aurtengo jaialdiko irudi bat.



Uda sasoian, mapan altxor

Udan bete-betean sartuta, zaila izango da beroa eta eguzkia gainetik kentzea hurrengo bi-hiru hilabeteetan. Herrian, ordea, badira horiei ihes egiteko zenbait gune, izan zuhaizpeak edo uretako guneak. Maxixatzen herriko txoko horien bila aritu da.

Argazkiak eta testuak: **Andoni Elduaian Soraluze.**



Urola ibaiaren ura

Uretan freskatzeko modu bat baino gehiago hautatzen dituzte herritarrek; izan ere, horretarako ez dago nahitaez igerilekura joan beharrik. Urola ibaian, batez ere Olotzaga parean, haur eta nerabe ugari ikusi ohi da udan, arraitxoekin batera igerian. Ibaiak dakarren ur hotza da, gainera, jolaserako bidelagunik onena.

Zuhaizpea herrigunean

Auzoaren bereizgarrietako bat duen belardi luzea bada ere, Trenbidearen Zumardiko aldaparen erdi-erdian dagoen zuhaizpea azkoitiar askok egiten du bere udan. Elkarri guztiz itsatsita dauden hostoek ez diote eguzkiari izpi bakar bat ere igarotzen uzten. Leku paregabea da itzala gustuko duten herritarrentzat.



Ipintzako bakea

Herrigunetik apur bat bereizita dagoen arren, Ipintza auzoan bada eguzkitik babestuta lasai eta patxada ederrean egoteko gune fresko bat. Belardiko mahaiek eta jarlekuek aukera ugari eskaintzen dute nahierarako, baita belarditik metro gutxira dagoen haurrentzako parkeak ere.



Juin azpiko zuhaizpea

Zuhaizpe honena ez da herriko ikuspegirik ederrena, baina Juin eraikinaren azpiko zuhaizpean jende ugari elkartzen da, batik bat, gaztetxoak. Paseatzetik bueltan atsedena hartzeko, edo besterik gabe, arratsaldea lagunartean kontu kontari igarotzeko oso leku egokia da.



Ugarteigarango estali gabeko igerilekuak

Udan freskatzeko nahiz aisialdirako gune izarrik bada Azkoitian; Ugarteigarango estali gabeko igerilekua da hori. Instalazioa haurren, gazteen zein helduen topagunea bihurtzen da ekainetik irailera bitartean. Asko eta asko joan ohi da goizean nahiz arratsaldean bainu bat hartzera eta zelaiaren gainean toalla zabaldua eguzkipean etzatera.



Uxer aldeko zuhaitzia

Herriko gune lasaietako bat Uxer aldean dago. Izarraitz mendikatearen azpiko eremu horretan enbor luzedun zuhaitzak daude, eta horiek itzal ederra sortzen dute, bai paseorako, bai eserlekuetan jarrita egonaldia egiteko. Ez dago maiteminduta egon beharrik hara joateko, baina nerabe eta gazte askoren "ezkutalekua" da.

San Juango berdegunea

Udan gutxiago nabaritzen bada ere, herriko gainerako gunetan baino gradu batzuk gutxiago markatu ohi ditu termometroak San Juanen. Paseatzera joandako oinezkoek atsegin handiz hartzen dute inguru horretako gerizpeko freskotasuna. Halaber, berdegunea mahaiz eta jarlekuz atonduta dago, eta aproposa da arratsaldea edo iluntzea han pasatzeko. Hori bai, berdegunea uzterakoan gogoan izan hondakinak zaborrontzira botatzea. ■■■■



(Des)gaitasuna



SARA RODRIGUEZ

Pertsonak sozialki definitzen dituzten egungo kategoriak kapitalaren beharrek zehazten ditu. Ildo horretan, proletarioak garen aldetik, gehiago eta gehiago ekoizteko —eta kontsumitzeko— gai izan behar dugu beti, aldi berean estatuarentzat/ kapitalarentzat geroz eta kostu gutxiago eraginez. Horrela, aurreikuspen kapitalista horiek betetzen ez dituzten pertsonak baztertu egiten dira bai ekoizpen-prozesuetatik baita kontsumorako sarbidedetatik ere. Hori da desgaitasuna duten pertsonekin gertatzen dena, horrela sailkatzen baitira salgaien fluxuak elikatzeko gaitasunik ez dituztenak.

Desgaitasuna gorputz edo buru akastunak dituzten pertsonak biltzen dituen kategoriatzat hartzen da maiz. Gorputzak eta buruak nola izan beharko liratekeen eta eredu horretatik gehiegi aldentzen diren pertsonak ezinduak direla dioen nolabaiteko ikusmoldea dugu. Azken urteetan, ordea, aniztasun funtzionala gisako terminoak—ustezko inklusio edo integrazioaren aldekoak— bultzatzen eta ezagutarazten hasiak dira, baita politika erreformista berrietan txertatzen ere. Termino horrek desgaitasunaren ikuspuntua aldatu nahi eta gorputz kalteturik ez dagoela aldarrikatzen du, araua hausten duten gorputzak daudela baizik; anitzak. Arau horrekin amaitu nahi duela dio, gizartea horien beharretara ahalik eta gehien egokitze asmoz, eta ez alderantziz.

Honek guztiak, ordea, dugun sistema kapitalistaren mugak azaleratu besterik ez ditu egiten niretzat, zerbait lagungarria eta aurrerakoia dirudien arren. Izan ere, komunitatean benetako integratziorako aukera errealik ez dago, ez soilik soldatapeko lanaren eta salgaien kontsumoaren dinamiketan sartzeko, baita estatuaren dirulaguntzak jasotzerakoan ere. Izan ere, desgaitasunaren nozio bera dinamika horietatik sortzen da, hain zuzen ere. Hori horrela, nahiko urrats mugatua da ezaugarri fisiko edo psikologiko jakin batzuk dituzten pertsonak mespretxu gutxiagoz izendatzea. Urrats mugatua baino, interesatua dirudi desgaitasuna dutenen lanaren egokitzapenean diharduten enpresarien jardunak, non horien lanaren devaluazioa guztiz zilegi egiten den.

Itxurakeria.

Jarrera paternalistaz horien onurarako zerbait ona egiten den "pina" jartzen diote heuren buruari. Horrela, zentro okupazionaletan musutruk lanean jartzen dituzte, ondoren miseria bat irabaziko duten lan batean sartzeko eta horri esker jasotzen dituzten dirulaguntzak poltsikora sartuz.

Beraz, bada garaia aniztasun funtzionala duten langileak subjeto politikotzat ikustarazteko eta zapalkuntza horren erroa jendartearen produkzioaz baliatzen den sistema kapitalista bera dela ulertzeko. ■

**KOMUNITATEAN
BENETAKO
INTEGRAZIORAKO
AUKERA ERREALIK
EZ DAGO**

IZAN IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukl.eus • 943-81 38 41

MAXIXATZEN

LAGUNTZAILEA:



Elkarlanean. Gero, Aldeberria.



Arnasgunean arnasestuka



IORITZ GONZALEZ

Azken egunotan, euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruko hainbat aburu entzuteko parada izan dugu hedabideetan. Herrian bertan neuk dudan sentipena azaldu nahiko nuke: azken urteotan, hizkuntzaren erabileran joera aldaketak sumatu ditut, eta ez dira izan euskararen onerako, zoritxarrez. Neure pertzepzioa da, baina nik uste badugula kezkatuta egoteko arrazoirik.

Euskal Soziolinguistika Klusterrak bost urtero egiten duen hizkuntzen kale erabileraren neurketaren emaitzak aurkeztu ditu. Ikerketaren arabera, Euskal Herrian zortzi pertsonatik bat aritzen da euskaraz (%12,6). Datu hori 2016ko berbera da; azken bost urteotan, beraz, orokorrean, ez da gorabeherarik izan euskararen kale erabileran.

Pentsa genezake euskararen erabilerak bere horretan dirauela, baina neurketaren emaitzak lurraldeka behatuz gero, ondorioak bestelakoak izan daitezke: Gipuzkoan erabiltzen da gehien euskara (%30,6), baina puntu erdi egin du behera 2016tik.

Eta gure herria joera horretatik at al dago? Ez naiz ni baikorra. Klusterraren ikerketak honako hau ere badio: "Eremu euskaldunenetan erabilerak behera egin du. Herri ertainak eta txikiak dira eremu horretakoak. Biziberritze prozesurako interes estrategikoa dute euskaldun dentsitate handiko eremuek, bertan euskara modu naturalean

transmititzen, birsortzen eta elikatzen baita. Arretaz jarraitu beharrekoak dira udalerrri horietan hizkuntzaren bizi indarrari eragiten dioten faktoreetan gertatzen diren aldaketak: ingurunean bertan bizi proiektu bideragarriak garatzeko aukerak, hirigintza proiektuen eragina, barne –eta kanpo– migrazio fenomenoak...".

Badirudi gure herrietako euskaldunen ezaugarriak aldatu egin direla, erdararen sarbidea areagotu egin dela... Eta horrek guztiak zuzeneko eragina du hizkuntza jardunean. Libe Mimenza eta Josu Amezaga Euskal Hedabideen Behatokiko kideak Legebiltzarrean aritu ziren egoerari buruz: "Gazteak hedabide tradizioaletatik ihes egiten ari dira oso modu arinean. Kazetaritzan ez bezala, egiaren baliorik ez dago Interneteko komunikazioan (sare sozialak, aplikazioak...)". Behatokiko adituek adierazi zuten egun gazte askok ez dutela Euskal Herrian egoitza duen komunikabiderik kontsumitzen; 14-20 urte arteko gazteen %69k ez diete Euskal Herriko hedabideei so egiten (%44koa zen duela 25 urte). Adi jarraitzeko gaia dela diote.

Kezkatuak egoteko arrazoiak, beraz, ez dut uste neure sentipen hutsak direnik. Ramon Saizarbitoriak duela gutxi esandakoa da: "Estatistikek diotenez, sekula ez da hainbeste jende izan euskara jakin eta erabiltzen ez duena". ■

Bertsoa paperean

Gaia: Pelotai Eune
Izena: Ugaitz Beristain
Doinua: *Iparragirre abila dela*

Pelotai egunek aurten berriz

hartu du bere lekua, festa bazkari nahiz omenaldi ta partiduz girotua, egunik polittena, girorik sanoena, pilotari uztartua, herria ordezkatzan duena eta herritik sortua.

Beste behin ere antolakuntza

lanean aritu da fin, zorretan sentitzen geraldoko lagundu dun ororekin, festa eder hau bada, beharrezko bultzada, egin daigun elkarrekin, pelota hotsa Kontzejupean luzaroan entzun dadin.

EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA
GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK

MILAR LARRAMENDI



WHIRLPOOL
MIKROUHIN LABEA AMW 442



BIZITZA ERRAZTUKO DIZUN ETXETRESNA BERRIA

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es